



## ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

<b>ikastetxea:</b>	IKASBIDEA IKASTOLA	<b>kodea:</b>	010012
<b>etapa:</b>	Batxilergoa	<b>zikloa/maila:</b>	DBH01
<b>arloan/irakasgaia:</b>	MUNDU GARAIKIDEAREN HISTORIA		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b>	Jose Manuel Etxabarri	<b>Ikasturtea:</b>	2021-2022

HELBURUAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
<p>1. Mundu garaikidearen historiako gertakari eta gertaera garrantzitsuak aztertu, azaldu eta denboran eta espazioan behar bezala kokatzea, prozesu historikoan duten esanahia eta gaur egun dituzten ondorioak balioesteko.</p> <p>2. Historia hurbila osatzen duten prozesu ekonomiko, demografiko, sozial, politiko eta kultural nagusiak ulertzea eta, horretarako, haiei lotutako hainbat faktore aztertzea, ezaugarriak esanguratsuenak identifikatzeko.</p> <p>3. Ikuspegi lokalistak eta eurozentristak gaindituz oraingo egoeren eta arazoaren analisia erraztuko duen mundu garaikidearen ikuspegi orokor bat eskuratzea, eta, horretarako, egoera eta arazo horien aurrekari historikoak zein elkarrekiko mendekotasuneko loturak kontuan hartzea.</p> <p>4. Historiaren kontzeptuak, terminoak eta oinarritzko teknikak behar bezala erabiltzea, hainbat informazio aztertu, konparatu eta bateratzea, eta ikerketa historikoko lanak egitea (bakarka edo taldean), lehen eta bigarren mailako iturri historikoen garrantzia eta historialarien lana balioesteko.</p> <p>5. Ikasgaiaren berezko edukiak ahoz zein idatziz behar bezala adierazi eta komunikatzea eta hainbat hizkuntza eta euskarritan adierazita dauden datu eta informazio historikoak hautatu eta interpretatzea, aztertutako prozesu historikoak behar bezala ulertzeko.</p> <p>6. Datu historikoak biltzea eta, horretarako, denboran orientatzeko kategoriak (iragana, oraina eta etorkizuna), denbora-posizio erlatiboak (segida, aldiberekotasuna, diakronia, sinkronia), iraupenak (faktikoa, koiunturala, egiturazkoa, iraupen laburreko, ertaineko edo luzeko fenomenoak) eta denbora-neurriak (denbora-unitateak, denbora eta kronologia historikoa) erabiltzea, gizartearen bilakaera historikoa ordenatu eta sintetizatzen.</p> <p>7. Gizarte-arazoaren aurrean (eta, bereziki, giza</p>	<p>1. Mundu garaikidearen historiaren etapa handiak eta ezaugarriak identifikatzea eta denboran eta espazioan kokatzea, haien arteko aldeak eta antzekotasunak bereiztea, eta egungo munduan izan duten eragina eta oihartzuna balioestea.</p> <p>2. Mundu garaikidearen historiako prozesu historikorik garrantzitsuenak ezagutzea, eta gertakari politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko loturak identifikatzea.</p> <p>3. Munduan gaur egun tentsio politikoa edo soziala bizi duen gune bati buruzko lan bat planifikatu eta egitea, bakarka edo taldean, eta haren aurrekari historikoak eta zergatiak aztertzea eta zer gerta daitekeen iragartzea. Hori guztia informazio-iturri egokiak erabiliz egitea – besteak beste, gertakari beraren beste interpretazio batzuk ematen edo interpretazio osagarriak egiten dituztenak.</p> <p>4. Historiaren kontzeptuak, terminoak eta oinarritzko teknikak erabiltzea, lehen eta bigarren mailako iturri historikoen betetzen duten zeregina balioestea, historialariaren lana aintzat hartzea eta jakintza historikoa etengabe lantzen ari den prozesua dela ulertzea.</p> <p>5. Egoki, berezkitasunaz eta modu sortzailean adierazten dituen ikasgaiaren berezko edukiak, ahoz edo idatziz.</p> <p>6. Zenbait unitate kronologiko erabiltzea denbora historikoa grafikoki irudikatzeko eta "aldaketa" eta "iraupen" nozioak adierazteko, eta zenbait garaitan eta lurralde-eremutan erabiltzea.</p> <p>7. Sistema demokratikoen antolamenduen eta erakundearen oinarri diren printzipioak identifikatzen eta azaltzen ditu, eta sistema horien garapen progresiboan eragina izan duten faktoreak eta zirkunstantzia historiko jakin batzuetan sistema horien hondamena eragin duten faktoreak aztertzen ditu.</p> <p>8. Gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuen</p>





eskubideak, bakea eta desberdintasuna - alderdi guztietan - eraginpean hartzen dituzten arazoaren aurrean) sentsibilitatea eta erantzukizuna garatzea, jarrera demokratikoak, tolerantzia-jarrerak eta parte-hartzea bultzatzen dutenak hartzea, eta irizpide-independentzia eta zorroztasun intelektualeko ohiturak eskuratzea.

8. Fenomeno historikoak zuzentzen dituzten prozesu eta mekanismoak aztertzea, eta egungo gizartearen bilakaeraren arrazoi ugariak ulertzea, historiaren ikuspegi orokor, arrazoitu eta kritiko bat izateko.

9. Egungo gizartearen irudi plural eta integratzaile bat lantzea eta gizarte horien barne heterogeneotasuna balioestea, haien bilakaera historikoaren ikuspegi orokor bat izateko.

10. Hainbat iturritatik lortutako informazioa bilatu, hautatu, interpretatu eta lotzea, eta historiaren berezko tresnen arabera komentatu den bezala tratatzea, prozesu historikoak azalduko dituzten hipotesiak lantzeko.

arrazoiak eta ondorioak adieraztea, haien artean loturak egitea, eta ohartzea gizarte-gertakariak hainbat arrazoi izan ditzaketela.

9. Egungo munduko gizartearen irudi plural eta integratzaile bat lantzen du, eta horretarako mota orotako informazioak aztertzen ditu (sozialak, kulturalak, historikoak eta abar).

10. Hainbat informazio aztertu, kontrastatu eta bateratzen dituzten ikerketa edo sintesi historikoko lan laburrak planifikatzea eta lantzea (bakarka edo taldean), horren bidez zorroztasun intelektualeko ohiturak hartu eta finkatzeko.

### METODOLOGIA

Erabiliko den metodologia ikasketa erreflexiboa eta esanguratsua lortzeko bideratuko da. Ikasleen papera aktiboa eta parte-hartzailea lortzen saiatuko da. Azalpenak eta ikasleen lanak tartekatzen joango da.

- Banakako galdeketa edo talde osoari egindako galderen bidez ikasleek dituzten aurretiazko ezagutzak ikusiko da.
- Atal guztiak landu ondoren, gaia bukatzen denean, irakasleak gai osoa erreparasatuko du, ideia nagusiak bilduz. Horretarako gaiari dagokion mapa kontzeptualaren bidez lagunduko da.
- Dokumentala eta filmak erabiliko dira azalduko indartzeko
- Honekin batera, ebaluazio bakoitzean bakarkako lanak edo taldekoak prestatuko dituzte ikasleek eta ikaskideen aurrean azalduko dute.
- Aurten IKTen erabilera indartuko da, eta eguneroko lanean presente egongo dira eskaintzen zaizkugun baliabideak: inika, gmail, drive, classroom, youtube, eta abar

### EDUKIEN SEKUENZIA

38	1. Antzin Erregimeneko Europan (7 saio)	32	5. Europa munduan nagusi zenekoa (1870 -1914) (5 saio)	40	9. Erregimen totalitarioak gerra arteko Europan eta bigarren Mundu Gerra (10 saio)
	2. INDUSTRIA ARO BERRIA (7 saio)		6. Potentzia handiak eta Lehen Mundu Gerra (1870-1918), (11 saio)		10. Mundu bipolarra (6 saio)
	3. MUGIMENDU LIBERAL NAZIONALAK (9 saio) ETA		7. Errusiako Iraultzak eta estatu sobietarraren sorrera (7 saio)		11. Inperio kolonialen amaiera. (6 saio)





<p>4. <b>LANGILE MUGIMENDUAREN SORRERA</b> (9 saio)</p>	<p>8. <b>Oparotasuna, krisialdia eta depresioa .Erregimen totalitarioak gerra arteko European</b> (10 saio)</p>	<p>12. <b>Bloke komunista eta bloke kapitalista (1947 -1991).</b> (11 saio)</p> <p>13. <b>Gaur mundua</b> (7 saio) <b>egungo</b></p>
---	---	--

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
<p>Honakoa kontuan izango dugu ikaslea ebaluatzerakoan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasgaia ebaluatzeko idatzizko zein ahozko probak egingo dira.</li> <li>- Aurreikusten da gairen bat edo beste taldeko edo banakako lanarekin lantzea.</li> <li>- Ikaslea ebaluatzerakoan kontuan hartuko da klasean egiten dituen lanak eta etxerako bidaltzen ditugunak ere. Gelan bidalitako lanak ez badira egiten, nota jartzerakoan hori kontuan izango da.</li> <li>- Egunero, klasera sartzerakoan, zerrenda pasako da eta ikasleen kontrola eramango da.</li> <li>- Klaseak aurrez aurrekoak ez badira, galdetegiak eta kasu praktikoak hartuko dira kontutan ikaslea ebaluatzerako orduan. Aurrez aurreko probaren bat egitea ere posible izan daiteke.</li> </ul>	<p>Erabiliko den kalifikazio balio portzentuala hauxe izango da: Kontzeptuak: % 70; Prozedurak: % 20; Jarrerak: % 10.</p> <p><b>Kontzeptuak</b> Azterketen noten bataz bestekoa kalkulatu da, bataz besteko hau egin ahal izateko, egindako tarteko azterketa guztietan gutxienez 4 eskatuko da 10 punturen gainean. Zatiren baten nota 4tik behera bada, nahiz eta bataz bestekoa 5 edo gehiago eman, ebaluaketako nota ez gaituztua izango da, baina erreperatu behar dena, suspentitutako zatia bakarrik izango da.</p> <p><b>Prozedura</b> Hemen sartuko dira klasean egindako bestelako lanen (artikuluak, taldekako lanak) kalifikazioen bataz bestekoa. Horretaz gain, ikasle batek agindutakoa betetzen ez duen bakoitzean, hamarren batean gutxituko zaio bataz besteko nota hori.</p> <p><b>Zeharkako konpetentziak</b> Ikasle bakoitza 10eko notarekin hasten da eta hortik gutxitu egingo zaio nota ondorengoak gertatuz gero: justifikatu gabeko hutsegitea (puntu bat), puntualitate falta (puntu erdia), klasean jarrera txarra<sup>1</sup>(puntu bat).Irakasgaia gaituzteko hiru atalak (kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak) gaituztea izan beharko dira</p>

**EBALUAZIOAREN ONDORIOAK**

**Berreskurapena:** ebaluazio bakoitzaren ostean egingo da (Kontzeptu, prozedura eta jarrera atalena), eta 3. ebaluazioko berreskurapena ohiko azterketa datan egingo da. Gaituzte gabeko ebaluazioak ohiko deialdian berreskuratu beharko dira banan-banan. Ikasleren batek ohiko



ebaluazioko azterketak gainditzen ez baditu, ez ohiko azterketa egin beharko du.

**OHIKOA Nota:** 3 ebaluazioen batz besteko nota izango da, baina horretarako ebaluazio guztiak gaindituta egon behar dira. OHIKO nota borobiltzerako orduan, hamartarra 7 edo handiagoa bada, gora borobilduko da. 6 edo txikiagoa bada, behera borobilduko da.

**Nota igotzeko prozesua:** nota igotzea nahi duen ikaslea ohiko deialdira joan daiteke, baina kontuan hartuko dena azken nota izango da (baxuagoa bada ere).

**EZ OHIKOA:** Ez Ohiko azterketan irakasgai guztiko azterketa egin beharko da eta lortuko den gehieneko nota 5 izango da.

**Pendienteen trataera:** Ikasleren batek irakasgaia gainditzea pendiente badu, bi deialdi izango ditu, Ohikoa eta Ez Ohikoa:

OHIKOA: azterketa bat egin beharko da ikasturte erdialdean. Azterketa hori egiteko galdetegi bat emango zaio ikasleari eta horrekin azterketa prestatu ahalko du. Galdetegia eginda entregatzea nahitaezkoa izango da azterketa hori egin ahal izateko.

EZ OHIKOA: ikasleak irakasgaia OHIKO deialdian gainditzen ez badu EZ OHIKO deialdia izango du. Irakasgai osoaren azterketa egingo da deialdi honetan eta bertan gehienek atera daitekeen nota 5 izango da.

#### OHARRAK / OBSERVACIONES

Eskatuko diren **gutxieneko jarrerazko edukiak** hauek izango dira:

1. Errespetua eta Ikastetxeko funtzionamendu arauak betetzea (Gida didaktikoa).
2. Klaseetan parte hartzea:
  - Jarrera aktiboa eta positiboa (ez hitz egin, trabarik ez egin, arreta ikaskideei, irakasleari, ...)
  - Lan pertsonala egitea.
  - Talde lanetan parte hartzea.
  - Klaserako beharrezkoa den materiala ekartzea.
  - Lanen eta jardueren epeak betetzea.
  - Hutsegiteak egin ondoren, egunean jartzea.
  - Egingo diren ekintza osagarrietan parte hartzea eta jarrera ona erakustea.
  - Irakasle eta ikasleekiko errespetua.
  - Elkarrizketa eta debateetan jarrera baikorra.
  - Bai gelan bai koadernoetan txukuntasuna eta garbitasuna.



Batez ere puntu hauek kontrolatuko dira eta zuzendaritzari horien berri emango zaie bertaratze parte desegokien bitartez:

- Mugikorra klasean erabiltzea (ezin da ez entzun ez ikusi).
- Errespetu falta irakaslearekiko edo ikasleekiko.

